

# Atxartekoekin elkartasunean greban daude Bizkaian eraikuntza enpresak

Sindikatuak balorazio ezberdina egin dute atzoko greba egunaz

**B**i egun hauetan Bizkaiko hormigoi, porlan eta hondar banatzaileek Atxarte eta Atxa Txikiko langileekin elkartasunean egin duten grebari buruz eritzi ezberdinak daude, Ascobiko lehendakariak Bizkaian dena geldituta zegoela zioen bitartean UGTk eragina eskaxa izan dela esan zuen.

GORANE AGIRRE / BILBO



ASCOBiko lehendakaria den Luis Andres Merodiok atzo Bizkaiko hormigoi, porlan eta hondar banaketa zerbitzu guztia geldituta zegoela adierazi zuen. «Grebak eragin osoa izan du, kontratista askok ez dute lan egin ahal izan», zehaztu zuen Merodiok. Atzo eta gaurko banaketa ezak 130 milioiko galerak eragingo dituela

azaldu zuen ASCOBiko lehendakariak.

Atxarte eta Atxa Txiki harrobie-tako enpresarien eledunak atzo jakinerazi zuenez, «presio bide hauen bidez administrazioa arazoaren larritasunaz jabetuko dela» espero dutela esan zuten.

ELA sindikatuak oso positibotzat jotzen du Bizkaiko eraikuntza sailko patronalak atzo hasi eta gaur arte luzatuko duen greba. «Atxarte eta Atxa Txikiko harrobie-tako langileekin elkartasunean burutu duten greba oso positibo iruditzen zaigu, eguneko arazoa konpontzeko bide bezala, horregatik bat egin nahi genuke grebarekin eta hori eragin duten arazoekin», adierazi dute ELAko ordezkariak. Ildo beretik, bi egunetako greba honek «ondorio eskaxak» izango dituela azpimarratu zuten iturri berberak, eraikuntzako enpresa gehienak ondo «hornituta daudela-

ko, eta nahiz egun pare batez hondar edo porlanik ez eraman lanean jarraitzea posible zaie».

## ESKALATZAILEEK JAITSI BEHAR

Atxarte eta Atxa Txikiko arazoari dagokionez, bestalde, ELAko ordezkariak argi utzi dute, eskalatzaileek egun indarrean dagoen ustiapen kontsezioari baimenduriko baldintzetan bukatzen utzi beharko lioketela.

CCOO eta LAB sindikatuak gai honi buruzko adierazpenik ez dute egin nahi izan. UGTk berriz, arazoa konpontzeko bidea greba ez dela azpimarratu zuen. UGT sindikatuko ordezkarien esanetan, bi harrobie-tako arazoa konpontzeko bide egokiena Eusko Jaurlaritzan, Patronal eta eskalatzaileen arteko negoziaketa da. Dena den, UGTk argi utzi nahi izan zuen bi egunetako greba Patronalak deitua dela.



Langileek jarritako suzko barrikadak ertzainek baztertu zituzten.

## Zegsako langileek bidea moztu zuten berriro Arrigorriagan

J.GARMENDIA / DONOSTIA



Arrigorriagako Zegsa Industria Kimikoetako langileek Barakaldon autopista zati bat moztu zuten atzo enpresako egungo egoeraren aurrean protesta gisa. Goizeko 10,30k aldera suzko barrikadak jarri zituzten N-625ean, Arrigorriaga parean, baina Ertzaintzak berehala itzali zituen.

Zegsa Industria Kimikoetako langileak egunero ari dira Arrigorriako trafikoa moztzen joan den aste-ostegunetik, hilak 10. Langileek lanpostuetan jarraitasuna eskatzen dute eta protesten karkoa enpresaren egoera zaila da.

Langileen protestak direla eta astelehen eta asteartean Ertzaintzak izandako jarrera kritikatu zuen UGT

sindikatuak, «neurrigabekoa» esanez. Ertzaintzak langile batzuen erasotu eta «enpresa batzordeak idazkaria atxilotzeko mehatxuak egin izana salatu zuten sindikatuak iturriek.

Zegsa enpresak 240 langile eta azken urteetan arazo handiak izan ditu. Langileek enpresari buruzko informazioa nahi dute UGTk adierazten eman zuenez. Enpresaren arazoak areagotu egin ziren 1987tik aurrera zuzendari orokor berria sartzean. Egungo egoera, «zuzendaritzaren jarrerak, kapital ezak eta bezeroen tzeak eragin du» langileen ustez.

Atzotik aurrera egunean lau olatu gehituko zituzten mobilizazioak eta datorren aste-ostegunetik, hilak 24, greba mugagabea hasiko da.

## Mugan kilo bat 'speed' sartu nahi zuten bi lagun atxilotuak

VASCO PRESS / DONOSTIA



Mugan 'speed' kilo bat sartu nahi zuten bi lagun atxilotu zituen Irungo Polizia Judizialak joan den hilaren 13an. Irungo komisaldegiko poliziek adierazi dutenez, speed kilo hori saltzera iritsiz gero, ehun mila dosi inguru osatuko lituzkete.

Atxilotuak, nafarrak biak, San Adriango hogeitahiru urteko Benito

E.G. eta Lodosako hogeitamar urteko Jose Manuel M.S. dira. Biak esan duenez, bigarren biak lehendik ere bazituen antezkoenak. Biak ere epaitegien eskutik atxilotu zituzten. Epaileak gartzelan sartzeko agindua eman duela.

Aidanez, Amsterdam-etik sartutako droga eta La Rioja, edota beste herrien inguruan banatzeko atxilotu zituzten, Poliziak azaldu duenez.

## Itoizko lanen konkurtsoa aste honetan aterako da

A.B. / IRUÑEA



Itoizko urtegiaren lanak hilabete honetan aterako ditu konkurtsora Estatuko Buletin Ofizialak (BOE), Antonio Aragon Nafarroako Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak adierazi zuenez. Urtegi honen lanen aurrekontua 16.000 milioi pezetakoa (842 milioi libera) da; Gobernu zentralak finantziatuko ditu.

El Ferial (Bardeak) urtegiari egin zuen bisitaldian, Itoizko urtegia eta Pitillasko aintziraren arteko Nafarroako kanalaren zatiaren finantziaketaz ere hitzegin zuen Aragonek. Nafarroako Gobernua harremanetan jarri da Administrazio zentralarekin,

zati honek duen 45.000 milioi pezetako (2.360 milioi libera) aurrekontua elkarrekin estaltzeko.

Nafarroako kanalaren lehendakariak Itoizko urtegiaren proiektuarekin, Nafarroako Plan Hidraulikoaren zati bat da. Proiektuaren barruan, urtegia eta kanalaren barruak ez ezik, Unziti, Billabeta eta Pitillasko erregulazio urmaelak sartuta.

Aragon kontseilariak kanalen lehenengo bost kilometroak finantziatuko ditu, eta beste bost kilometroak finantziatuko ditu. Aurrerantzean, aurrerantzean epeak beteko dituzte.

## Aldibaterako kontratazioa

50 ADMINISTRARI LAGUNTZAILE, HAZIENDA, FINANTZA ETA AURREKONTU DEPARTAMENTURAKO.

Eginkizunak:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 1990eko kanpainaren gestioa aurrera eramaten laguntzea.

Eskakizunak:

- Gutxienez 18 urte izatea.
- Eskola graduatua, LH1 edo baliakideren bat.
- Gipuzkoa barruan lekuz aldatzeko prest egotea.
- Prestakuntzako ikastaroa gainditzea.

Lantokia:

Ondorengo edozein herritan: Azeitia, Bergara, Hernani, Errenteria, Donostia, Tolosa, Irun eta Eibarren.

UDAL ERROLDA IKUSKATZEKO 20 ARDURADUN, UDAL HARREMANETAKO DEPARTAMENTURAKO.

Eginkizunak:

- Udal Errolda egiteko kanpainan laguntzea.
- Udal Erroldan izena emateko orriak araztea.
- Datuak egiaztatzea.
- Erroldaren Udal arduradunekin lankidetzan aritzea.

Eskakizunak:

- Gutxienez 18 urte izatea
- Eskola graduatua, LH1 edo baliakideren bat.
- Gidatzeko karneta.

Lantokia:

- Donostia eta ingurua - 1 eta 2 zonak
- Eibar - 3 zona
- Oñati - 4 zona
- Tolosa - 5 eta 6 zona

Bi deialdiotara:

OINARRIAK:

- Foru Aldundiaren Iragarri Arbelean argitaratuko dira, urtarrilaren 18tik aurrera.
- Foru Aldundiaren Jauregi Informatio Bulegoan eskatu ahal izango dira.

INSTANTZIAK:

Horretarako prestaturik dagoen inprimaki erudian entregatuko dira Foru Aldundiaren Erregistroan, URTARRILAREN 31RA BITARTEAN.

OHARRA:

Errolda ikuskatzeko Arduradungaien hautetzen duten ZONA adierazi behar dute INSTANTZIAN (Ikus Oinarrien Eranskina).

Donostia 1991 urtarrilak 16.

IDAZKARI TEKNIKOA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Lehendakari Departamentua  
Departamento de Presidencia